



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2017ko urriaren 10a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:34 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Iñigo Arruti Agirre, Jose Angel Iparragirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2017ko martxoaren 28ko, maiatzaren 30eko eta uztailaren 26ko ohiko bilkurak; eta 2017ko apirilaren 5eko eta ekainaren 26ko ezohiko bilkurak.
- 2.- Aitziber Campos Morey zinegotziak (EAJ) aurkeztu duen idatziaren berri ematea. Idatzian dio uko egiten diola bere dedikazio partzialari.



- 3.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina izango duena.
- 4.- Onartzea, egoki bada, itsas-lehortar jabari publikoko 2.981 m²-ko okupazioaren lagapenerako baldintzak eta preskripzioak. Lagapena Ibai-Ondo ibilbideko pasealekua legeztatzeko izango litzateke, bide eta aparkalekuen zabalera murriztuz bidegorri bat egokitzeko.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2017KO MARTXOAREN 28KO, MAIATZAREN 30EKO ETA UZTAILAREN 26KO OHIKO BILKURAK; ETA 2017KO APIRILAREN 5EKO ETA EKAINAREN 26KO EZOHICO BILKURAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Jose Angel Iparragirre Alberdi zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta alkateari galdetzen dio ea udalbatzarraren bilkura honetan eskari eta galderen txandarik izango ote den.

Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta berriro eskatzen dio alkateari udalbatzarraren ezohiko bilkuren gai-zerrendetan ere eskari eta galderen gaia sartzeko.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du indarrean dagoen toki-araubidean ezarritakoaren arabera, udalbatzarraren ohiko bilkuretan bakarrik dagoela behartuta eskari eta galderak gai-zerrendan sartzera. Esaten du, baita ere, agintaldiaren hasieran erabaki zuela ez zuela eskari eta galderen gaia sartuko udalbatzarraren ezohiko bilkuretako gai-zerrendetan eta, beraz, irizpide horri eusten diola.

Zenbait zinegotzik egindako galderak direla-eta, idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du gai-zerrendako puntu honetan gaia hau dela: udalbatzarraren akten zirriborroak aztertzea, beharrezko bada horiei oharra egitea eta, azken finean, aktak onartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, akten zirriborroei inolako oharrik egiten ez zaienez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu) eta Ubegun (EH Bildu), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua,



beraz. Abstentzioak: Arruti (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA udalbatzarraren honako bilkuretako aktak: 2017ko martxoaren 28ko, maiatzaren 30eko eta uztailaren 26ko ohiko bilkuretakoak; eta 2017ko apirilaren 5eko eta ekainaren 26ko ezohiko bilkuretakoak.

2.- AITZIBER CAMPOS MOREY ZINEGOTZIAK (EAJ) AURKEZTU DUEN IDATZIAREN BERRI EMATEA. IDATZIAN DIO UKO EGITEN DIOLA BERE DEDIKAZIO PARTZIALARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak jakiten du, baita ere, alkateak egindako proposamen honen berri: aurrerantzean, Aitziber Campos Morey zinegotzia Hezkuntza eta Euskara batzorde informatzailearen buru izatea eta Eugenio Cotado Iturain zinegotzia (EAJ), berriz, Obra, Zerbitzuak, Kirol eta Gazteria batzorde informatzailearen buru izatea.

Alkateak proposatzen du Eugenio Cotado Iturain zinegotziak (EAJ) %25eko dedikazio partzialarekin eta UDALHITZeko 20. ordainsari-mailarekin betetzea Obra, Zerbitzuak, Kirol eta Gazteria batzorde informatzailearen buru kargua.

Zinegotzien artean eztabaida sortzen da alkatearen proposamen horretaz, zeren eta gai hori —Obra, Zerbitzuak, Kirol eta Gazteria batzorde informatzailearen buru kargua dedikazio partzialarekin betetzea— onartzea ez baitago udalbatzarraren gai-zerrendan jasota. Gai-zerrendan azaltzen dena da Aitziber Campos Morey zinegotziak idatzia aurkeztu duela, bere dedikazio partzialari uko eginez, eta horren berri emango dela.

Eztabaida ikusita, alkateak erabakitzen du Eugenio Cotado Iturain zinegotziak Obra, Zerbitzuak, Kirol eta Gazteria batzorde informatzailearen buru kargua dedikazio partzialarekin betetzearen gaia hurrengo udalbatzar batean aztertu eta erabakitzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da Aitziber Campos Morey zinegotziak (EAJ) bere dedikazio partzialari uko eginez aurkeztu duen idatziaz eta alkateak batzorde informatzaileak berregituratzeko egin duen proposamenaz. Horren arabera, aurrerantzean, Aitziber Campos Morey zinegotzia Hezkuntza eta Euskara batzorde informatzailearen buru izango da eta Eugenio Cotado Iturain zinegotzia (EAJ), berriz, Obra, Zerbitzuak, Kirol eta Gazteria batzorde informatzailearen buru izango da.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, 2018KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA ERAGINA IZANGO DUENA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2017ko irailaren 22ko eta urriaren 5eko Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailean diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- Diktaminatzen da Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkion karga-tasak **MANTENTZEA** eta **IGOTZEA**, hurrenez hurren, era honetara:

- ‰ 3,964, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- ‰ 1,873, gainerako ondasun higiezinatarako.

Familia ugarienezako hobariek indarrean segituko dute.

Errekarguak.

Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, Orioko Udalak ‰50eko errenergua eskatuko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie; zergaren une berean sortuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak ere etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Ondorio horietarako ere, presuntzioa egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatua badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.

Errekarguaren salbuespenak:

- 1.- Zerga hobariren bat dutenak.
- 2.- Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emandako jarduerekin lotutakoak.
- 3.- Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiagoz alokatuta egon diren etxebizitzak (alokatuta bakarrik; ez dira sartzen erabilera-lagapenak). Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbuespena aplikatzeko:
 - Salbuespena aplikatzeko eskaria.
 - Alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatuta. Kontratu horretan agertu behar du higiezinak etxebizitza-xedea edo erabilera izango duela.



- Alokairua kobratu izana justifikatzen duten agiriak, zergaren sortzapenaren aurreko urteari dagozkionak.

Gipuzkoako Foru Ogasunari alokairu-kontratu horien berri emango zaio.

4.- Zahar-egoitzatan erroldatutako pertsonen titularitatepeko etxebizitzak. Salbuespen hau aplikatuko zaio, bakar-bakarrik egoitzan sartu aurretik pertsona horren ohiko etxebizitza zenari.

5.- Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta bi urteko epean.

6.- Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxeak, non, nahiz eta urtarilaren 1ean inor ez egon erroldatuta, erroldatzeko tramitea egin den zergaren sortzapenaren urteko lehen hiruhilabetean.

7.- Legez aurri-egoeran deklaraturako eraikinetan kokaturako etxebizitzak.

8.- Hiri katastroaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txotena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.

9.- Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokaturako etxebizitzak.

10.- Urbanistikoki antolamenduz kanpokotzat kalifikaturako eraikinetan dauden etxebizitzak.

11.- Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute.

Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.

12.- Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta erroldatuta badago. Zaintza pertsonalen beharra mendekotasun-balorazio bidez frogatuko da. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.

Diktaminatzen da Nekazaritza izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa %1,10ean **MANTENTZEA**.

2.- Diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.



3.- Izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga-tasa eta urteko portzentajeak **EZ IGOTZEA** diktaminatzen da.

Hobariak mantendu egiten dira.

4.- Diktaminatzen da, orokorrean, %1,8 **IGOTZEA** trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifak, honako salbuespenarekin: C) atala (Kamioiak) ez da igoko. Bestalde, bere horretan mantentzen dira zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobariak.

5.- Diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaizkion zerga-tasak.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek.

6.- Diktaminatzen da Euskadiko Erkidegoko abuztuko urte arteko KPIa **IGOTZEA** –hau da, %1,8– ondoren zerrendatzen diren tasen tarifatan:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea (ezarritako hobariak indarrean segituko dute).
- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eskusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.
- Edozein udal bide publikoren hegala-irteera okupatzea (kentzea diktaminatzen da).
- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak (bere horretan mantentzea diktaminatzen da, batere igo gabe).
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean, indarrean eutsiz ezarritako hobariei.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute.
- Udak kiroldegiko garajeen erabilera.



- Kultur etxeko bulegoen erabilera (diktaminatzen da igotzea, bakar-bakarrik, 1. tarifari dagozkion atalak).
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Mendibeltz futbol/softbol zelaiaaren azpiko garajeen erabilera (diktaminatzen da igotzea, bakar-bakarrik, garaje-plazen alokairua).
- Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera
- Salatxo udal aretoaren erabilera.
- Orioko Eguneko Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea. Diktaminatutako tarifak hauek dira:

Euroak

- | | |
|-----------------------------------|-------|
| a) Orraztea..... | 2,95 |
| b) Garbitzea eta orraztea..... | 6,80 |
| c) Eskuz lehortzea..... | 7,60 |
| d) Ilea moztea..... | 5,50 |
| e) Metxak..... | 17,80 |
| f) Permanentea..... | 15,70 |
| g) Tindatzea..... | 15,00 |
| h) Plisa..... | 2,05 |
| i) Bitamina..... | 4,05 |
| j) Crema..... | 2,05 |
| k) Manikura..... | 4,90 |
| l) Bekainak..... | 2,05 |
| m) Goiko ezpaina eta kokotsa..... | 2,05 |
- Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalazioa eta funtzionamendua: tarifak %10 igotzea diktaminatzen da.



7.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak EZ IGOTZEA diktaminatzen da:

- Bide publikoko lurzoru, lurrazpia eta hegalkinen erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea.
- Udal administrazioak edo udal agintariek norbaiten eskariz emandako agiriak.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Estoldako zerbitzua ematea (kentzea diktaminatzen da).
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskaketak egitea.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- Udal pilotalekuaren eta Antillako hondartzako kabinen erabilera (dutxak eta komunak erabiltzeagatik aplikatu beharreko tarifak mantentzea diktaminatzen da).
- Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea.
- Udalaren txosnaren erabilera.
- Udalaren oholtzaren erabilera.
- Udal parrillen erabilera.
- Udal ludotekaren erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamenduen erabilera. Erabiltzaileei aplikatzen zaizkien hobariak indarrean segituko dute; horretarako, diru-sarrera osoak kontuan hartuko dira (lan errentak eta kapitala) eta ez bakarrik pentsioaren kopurua.
- Udal futbol/softbol zelaiaren erabilera.
- Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroaren erabilera.



8.- Tarifak mantentzea diktaminatzen da Trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatzeagatik, horretarako zehaztutako zonatan eta ezarritako mugekin. Laugarren aparkatze-ordutik aurrera hobari progresiboa aplikatuko da, taula honen arabera:

1 h	1,25 €
2 h	2,50 €
3 h	3,75 €
4 h	4,40 €
5 h	5,15 €
6 h	6,10 €
7 h	7,00 €
8 h	8,00 €
9 h	9,00 €
10	10,00 €

Diktaminatzen da tarifak %50 jaitea Txankako aldapan.

9.- Diktaminatzen da tarifak **MANTENTZEA** udal hilerrian zerbitzuak emateagatik eta kontzesioengatik, kontzesiodun enpresa pribatuak udalari kobratuko diona kontuan hartuta. Ordenantza fiskaletan berariaz jaso gabeko zerbitzuetan, erabiltzaileak ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateagatik Udalari kobratzen dion kantitate bera.

10.- Kontuan hartuta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera mankomunatu egingo dela zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua, aplikatu beharreko tarifak Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

11.- Orioko Udal Musika Eskolan 2017-2018 ikasturtean aplikatu beharreko tarifak Orioko udalbatzarrak 2017ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuran onartutakoak dira (2017ko ekainaren 12ko 111. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak):

Tarifa bakarrak:	Euroak
a) Musika mintzaira ikasleko.....	244
b) Instrumentu ikasgaia ikasleko (2. eta 3. mailan).....	356
c) Musika tailerra ikasleko (1. mailan).....	178



d) Ikasketa osagarriak (3. mailan).....	244
e) Bigarren instrumentua ikasleko (2. eta 3. mailan).....	641
f) Euskal dantza ikasleko.....	244
g) Euskal dantza ikasleko instrumentuan matrikulatuta egonez gero.....	200
h) Musika instrumentuen alokairua (etxera eramanda).....	114
i) Musika instrumentuen alokairua (musika eskolan).....	65
j) Instrumentu taldea ikasleko.....	70
k) Instrumentu taldea ikasleko (beste asignatura batean ere matrikulatuta egonez gero)	Doan

2017-2018 ikasturteko matrikula tasen murrizketen arautegia dagoeneko onartua du Orioko udalbatzarrak 2017ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuran (2017ko ekainaren 12ko 111. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta).

12.- Udal kanpinaren erabileragatik aplikatu beharreko tarifak Kultura eta Turismo Batzorde Informatzaileak 2017ko irailaren 20an diktaminatutakoak izango dira.

13.- Udal kiroldegia erabiltzeagatik aplikatu beharreko tarifak Kiroletako Batzorde Informatzaileak 2017ko abuztuaren 28an diktaminatutakoak izango dira, BPXport KIROL ZERBITZUAK enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako proposamenaren arabera, salbuespen honekin: kuota, bonu eta sarreraren tarifak %1,8 igoko dira.

14.- Tennis, padel eta squash pistak erabiltzeagatik aplikatu beharreko tarifak Kiroletako Batzorde Informatzaileak 2017ko abuztuaren 28an diktaminatutakoak izango dira, BPXport KIROL ZERBITZUAK enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako proposamenaren arabera.

15.- BPXport Kirol Zerbitzuak hala proposatuta, Arraunetxeko instalazioak erabiltzeko 1. tarifak egokitzea diktaminatzen da, tarifa horiek batz bestea %2,5 igoz. Bestalde, BEGI BISTAN enpresa adjudikaziodunak hala proposatuta, diktaminatzen da 2. eta 3. tarifak bere horretan mantentzea, igo gabe.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2017ko irailaren 22an eta urriaren 5ean emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminoetan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Agindua 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritza.

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Jose Angel Iparragirre zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak baiezko boto kritiko bat eman duela, ez dagoelako guztiz ados hainbat konturekin: batetik, martxoan egindako Ogasun batzordearen bilkuran aztertutako Musika Eskolako tasen murrizketen gaiarekin; bestetik, urriaren 5ean egindako Ogasun batzordearen bilkuran aztertutako udal kiroldegiko kuota, bonu eta sarreraren tarifen gaiarekin, bere talde politikoak BPXport enpresa adjudikaziodunak proposatutako tarifak defendatzen baitzituen; eta, azkenik, Kirol batzordearen bilkuretako akten gaiarekin, akats material ugari baitauzkate. Nolanahi ere, bere talde politikoak zorionak eman nahi dizkie Ogasun batzorde informatzaileko kide guztiei, ordenantza fiskalen gaian lortu duten ahobatezko adostasunagatik.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ITSAS-LEHORTAR JABARI PUBLIKOKO 2.981 M2-KO OKUPAZIOAREN LAGAPENERAKO BALDINTZAK ETA PRESKRIPZIOAK. LAGAPENA



IBAI-ONDO IBILBIDEKO PASEALEKUA LEGEZTATZEKO IZANGO LITZATEKE, BIDE ETA APARKALEKUEN ZABALERA MURRIZTUZ BIDEGORRI BAT EGOKITZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Baldintza eta preskripzio horiek Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Nagusiak 2017ko abuztuaren 31n hartutako erabakiaren bidez bidali zaizkio Oriko Udalari, onartzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2017ko urriaren 5ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA itsas-lehortar jabari publikoko 2.981 m²-ko okupazioaren lagapenerako baldintzak eta preskripzioak, Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Nagusiak 2017ko abuztuaren 31n hartutako erabakian ezarritakoak. Okupazioaren lagapena Ibai-Ondo ibilbideko pasealekua legeztatzeke izango da, bide eta aparkalekuen zabalera murriztuz bidegorri bat egokitzeke.

2.- JAKINARAZTEA erabaki hau Gipuzkoako Itsasertzeko Probintziako Zuzendaritzari, jakinaren gainean egoteko eta horren ondorioz jokatzeko.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,